

Goi mailako bertsolariak hilaren 18ko Zeanuriko bertso saioan

12. orrialdea

Zeanurin Arratia-Nerbioi Pelota Txapelketaren finala

Arratia-Nerbioi Eskolarteko Pelota Txapelketaren finalak urtailaren 17an eta 24an izango dira, Orozkon eta Zeanurin hurrengo hurrengo. Hilaren 17an B Txapelketaren finala izango da eta 24an, E Txapelketaren finala. Zeanurik dauka txapel gehien lortzeako aukerea. **10. orrialdea**



Igorreko jubiladuak hainbat mendi ibilbide markau dabez

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

222

2015eko urtailaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiako tranbiaren gaineko erakusketea antolatu dau Zertuk

Orain 10 urte, Jon Urutxurtu historialari zeanuriztarra hasi zan Arratiako tranbiaren gaineko materiala biltzean.

Tranbiaren atzen biajearen 50 urte bete diranean, Zertuk Kultur Elkartek antolatuta, *Bilbotik Durango eta Arratiarako tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik* izeneko erakusketea ikusgai egongo da Zeanurin, Igo- rren, Lemoan, Areatzan eta tranbiak geralekua eukan beste hainbat herritan. Hilaren 30ean izango da erakusketearen inaugurazioa. Jon Urutxurtu erakusketearen komisarioak egingo dau aurkezpena eta, ondoren, Juanjo Olaizolak, Burdinbidearen Museoko zuzendaria eta Arratiako Tranbiari buruzko liburuaren egileak tranbiaren historia eta garrantzia- ren gainean egingo dau berba.

Erakusketan tranbien maketak, tranbiaren zinema irudiak, hemeroteka dokumentuak, grafikoak, bileteak, argazkiak...

ekarriko dabe gogora, garraio bat baino gehiago, Arratiaren ikurra be izan zan tranbia.

"Bizkaiko aberatsak"

Arratiko gizona

Bilbora doa maiz,

Lemoako tranbian

eta beti garaiz.

Bere artean dio

umore txit alaiz

traje berri batekin

gaur bestituko naiz

lehengo arlotea

jantziko da galaiz. (Gabriel Aresti) 12. orrialdea



Arratiako tranbia Zeanurin.

ARRATIA

Industriaren gorabeherak eta paisajea

Hainbat eraikin industrialek osotu- tako argazki bildumea dakar BEGI- tuk oraingoan erdialdeko orrietan. Eraikin horreetako batzuetan aspal- di itxi zan bertan behera produkzio- noa eta gaur egun paisajearen parte dira. Beste batzuk oraintsu arte martxan egon dira eta, akaso, bigarren aukerea be izango dabe. Dana dala, danak indar estetiko handia daukie eta, akaso hilzo- rian dagoan behar egiteko modu bat, sasoi bat, adierazoten dabe. **8. eta 9. orrialdeak**



DIMA/UBIDE

2015erako aurrekontuak onartu dabez

Dimak, zorra jeistea eta egoera ekonomikoa neurri handi baten nor- malizeteta lortu dau eta 2015erako onartutako aurrekontuetan, inber- sinoetarako diru partidea % 82 igon da. Diru horregaz egingo diran inbersinorik garrantzitsuenak saneamentua eta eskolea handitzeko proiektua dira.

Ubiden be badago inbersinoetarako dirua, N-240 kamino zaharra asfaltetako, hain zuzen be. **5. orrialdea**

E P A
30. URTEURRENA
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
urtaila osoa.
Tlf. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

LEMOA

Saltokiak euskalduntzeko kanpaina eta hitzarmena

Euskerearen Egunean, abenduak 3, Lemoan zazpi saltokitako arduradunak hitzarmena sinatu eben Udalgaz euskerea bultzatzeko euren establezimentuetan. Horrek ze aldaketa ekarri dituan euren eguneroko jardunean jakiteko BEGIUK Tresnak Suministros Industriales-eko Nerea Ozerin eta Opel Ibaiganeke Pedro Betzuen alkarrizketatu ditu. **6. orrialdea**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

SAN MARTINEN HAMABI EGIAK (I)

Zeberion batutako abesti hau, mitologiagaz lotuta dago. Lehenago, antza, estukurak eragindako, baten batek laguntza eskatzen ei eutsan deabruari behar gogorren baterako eta deabruak onartu bere arimearen truke. Baina, dana dalako horrek bere arima galduta ikusi orduan, beste tratu bat egin ei eban deabruagaz

Pedro Boteroren galdarara joan ez egiteko betiko.

Abesti honetan, tratu barri horren barri emoten da. Deabruak esan ei eutsan baserritar horri San Martinen hamabi egiak kontatu edo kantatu egiten baeutsazan, barrien barriz lortuko ebala bere arimea. Eta halaxe gertatu ei zan. Abesti hau errepika-teknikaz

kantetan da. Egia barri baten ostean baterainoko guztiak errepikatzen dira.

Hi, San Martin

Esaik bat: gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.
Esaik bi: Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik hiru: hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.
Esaik lau: lau ebanjelisteak lau, hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.
Esaik bost: Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinitadeak hiru, Erromako

altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.
Esaik sei: sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebanjelisteak lau, hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 19tik 25ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 26tik zezeilaren 1era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidua makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Samazarratua



Neguren bihotzean gagoz, sasoi aproposa samazarratua (samazarratue, agoskatuta) eukiteko. Zer da baina samazarratua? Samako minari, eztulari edo bularrekoari esaten jako. Hotzak dirala-eta, abotsa hartuta, minduta, sari, berba egin ezinik be paretan gara. Gaxari aurre egiteko painelotxo bat, alkoholean bustita, ipinten dogu samatik biribilduta. Lehenagoko erremedio tradizionalan, eta gaur egun be, samako minentzako, limoi ura ezti apur bategaz nahastuta hartzean da.

ERETXIA

Igorren bigarren pediatria lanpostua sortu

Igorreko Osasun Zentroan kokatuta dagoan pediatria zerbitzuak Arratiako udalerrri askotako umeak atendiduten dauz, hain zuzen be Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Dima eta Igorreko 14 urtera arteko ume guztiak. Aspalditxotik pediatria zerbitzuko medikua lanez gainezka dago eta horixe jakitera emon eban medikuak berak 2013 urte amaieran bere Zerbitzu Erakundera (Osakidetzako Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratua) idatzizko ofizio bidez.

Igorreko pediatriaren egunero lan-kargea norainokoa dan konturatu gaitez, erreparau deiogun Osakidetzak berak lehen mailako atezinoko pediatria zerbitzuetarako ezarrita daukazan kupoai. Hain zuzen be, Osakidetzak Euskadiko Medikuen Sindikatuagaz akordio bidez onartu eban 2007an pediatriaren gehieneko kupoia 800 OTI/TIS-ekoa izango zala eta kupo horretatik gora egozan pediatriaren kargea arintzeko pediatria plaza barriak sortuko ebazala onartu eban. Igorren kokatuta dagoan pediatriaren kupoia 1400 OTI/TIS-etik gorakoa da, erabat neurritz kanpokoa.

Lan-karga ikaragarri horrek zuzenean egiten deutso kalte Igorren kokatuta dagoan pediatriako osasun-zerbitzuen kalidadeari, baldintza horreetan ezin dauz pediatriak gure umeak patxadaz atendidu eta ezin deuskuz hitzorduak arrazoizko epeen barruan emon. Urtebete baino gehiago pasau da pediatriak Osakidetzak jakinaren gainean ipini ebanetik hona, eta egoereari ez jako urtenbiderik emon. Badakigu, jakina, Osakidetzak jarri ebala errefortzua, egunero hiru ordukoa hain zuzen be, pediatriaren lan-kargea arintzeko, baina argi dago ez dala na-

IGORREKO GURASO ELKARTEA

hikoa izan inondik inora, arazoak bere horretan dirau eta. Egoera honen inguruko barriak, kejak eta adierazpenak agertu dira han-hor-hemen asteokaz.

Igorreko Guraso Elkartetik tartetxo hau aprobetxau gura dogu Igorreko pediatriaren kemena eta profesionaltasuna azpimarratzeko; bere esku dagoana egiten dabil geure haurren egoera honeri konponbidea emoteko eta beraz, geure haurren osasun-zerbitzuen kalidadea hobetuteko. Horregaitik ba, geure babes osoa adierazo gura deusagu guraso guztien izenean.

Babesa adierazoteaz aparte, pediatriako zerbitzuen erabiltzaile garan aldetik, goian aitatutako udalerrietako guraso alkarreak be geure ekarpena egin gura izan dogu, honelaxe: batetik, joan dan abenduaren 30ean alkarretaratzea egin genduan Igorreko Osasun Zentroaren aurrean bigarren pediatria lanpostua eskatzeko. Bestetik, idatzi bat bialdu deusagu gai honeetan ardurea daukan Osakidetzako Zuzendari-tzeari, geure kezka adierazo eta formalki urtenbidea eskatzeko. Azkenik, idatzitxo hau atera dogu Arratia mailako aldizkari honetan pediatria-zerbitzuko erabiltzaile zarien guraso eta ume guztiak jakitun ipinteko eta legez jagokuna eskatzeko: kalidadeko osasun-zerbitzua Igorreko pediatrian; bigarren pediatria lanpostua Igorreko osasun-zentroan albait arinen!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Euzkoan Batzua

MONDRAGON

LUMATUTEN



RUTH LINAZA

Ikustezinak gara

Euskaldunok, 40 urte baino gehiago daroagu sokatirearen nazinoartera zabalduen. Errez esaten da 40 urte eta halanda be, inor gitxik daki sokatirearen existidu egiten dala be. Nik neronek be, kirol hau egiten hasi orduko, jaietan ekintza gutiz folkloriko, jolastokietan eta udalekueetan egiten zan denpora-pasatzat neukan sokatirearen. Baina ez da holan. Urte asko daroagu euskal sokatirearen mundu guztira zabalduen. Eta zorionez, itzelezko maileak daukagu nazinoarterean. Urteak eta urteak daroaguz txapelketak irabazten eta kanpoko aurkarien idolo izaten. Bai, ondo irakurri dozue, idolo eta kirolari moduan, eredu.

Halanda be, etxean, herrietan, urietan, gitxik daukie gure barri.

Urte honeetan gainera, amets bakarra izan dogu euskaldunok sokatirearen. Nazino mailan Euskal Herria ordezkatzeko aukerea izatea. Eta lortu dogu. 2014. urtea, sokatirearen ofizialtasunaren

urtea izan da. Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea bete egin da.

Ha ta guzti be, notizia pozgarri honek izan dauan oihartzuna, txikia izan da. Sariren bat, agintarien aldetik emondako errekonozimendu nire ustez apalegia, presan notiziaren bat agertu bada agertu... Gitxiegi.

Euskal Selekzino Ofizial bakarra dauan kirola izanda, gitxiagizko babesaren nire uste apalean.

Euskal Selekzinoak pasa dan Munduko Txapelketan lortu ebatzan emoitza inor gitxik dakiz. Komunikabideetan, inork gitxik emoten dau sokatirearen gaineko notiziarik. Herri mailan inor gitxik daki nor dan atzen munduko sokatira txapelduna...

Ikustezinak gara, guztiz ikustezinak gainera.

Eta tristeena, paparrean dominak eskegitako orduan edota argazkian agertutako orduan, mundu guztia prest dauala da. Baina gure artetik desagertutako arriskuan dagoan "gure" kirol honerik benetako babesaren eta oinarriko emon behar jakon orduan... orduan, ate guztiak itxita dagoz eta begikuneak, beste alde batera begiratuten dabe.

Ia hemetik aurrera, Euskal Sokatira Selekzinoak aurrera egin daian, eta dirutzak mobiduten dabean, kirolak hainbeste babestu barik, babes hori danori ailegetan jakun. Ze herri txiki bat gara, baina sokatiran, herri handi bat!

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Leku eder asko dagoz gure inguruan. Batzuetan noraezean joanda topatzen doguz eta beste batzuetan, barriz, beren-beregi euren bila joan garalako. Dana dala, noraezean ibilita be, norabidea jakinda ibiltea komenidu da: nora goazen edo nora ez dogun joan gura, ebatzi konszientea izateko. Eta holan be espero ez genduzan paraje zoragarriak topauko doguz bidean, duda barik.

Arratian mendi ederren artean sakabanatutako auzune pilo dago. Bideak seinaleztatuta daukaguz, ez bakarrik kanpoztarrak galdu ez daitezkan; bertakoak, gura izan ezker, kontrako norabidea be hartu dagien.

Atzen finean horixe da askatasuna: tokau jakun geografian bidea aukeratutea.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarroa

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Hilabeteko Zerbetea: 900
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

DIMA

Saneamenturako eta eskolea handitzeko dirua 2015eko aurrekontuetan



Dimako eskolea.

Igazko kontuen aldean inbersinoetarako diru partidea % 82 igoko da.

Erredakzioa

Aurreko urteetan Dimako Udal kontuak hainbeste baldintzatu dituan zorra kontrolpean dagoala dinoe Udaletik eta Udalaren funtzionamentua, zein egoera finantzarioa hobetzen joateko 2015rako aurrekontu orekatua onartu zan. 2015eko aurrekontua 1.519.201 eurokoa da, 2014koa baino % 6,1 gehiago.

Orokorrean 2014ko aurrekontuagaz alderatuta, aldaketa batzuk dagoz. Inportanteena, gastu finantzarioa % 43,7 jeitsi dala eta sarrerak % 6 igo. Hori dala eta diru gehiago bideratuko dabe inbersinoetarako. Saneamentua eta eskolea handitzeko proiektua izango dira inbersino garrantzitsuenak. Inbersinoak 225.401

eurotik 410.298 eurora pasauko dira, hau da, % 82 igongo dira.

Oraindino mailegu bi gelditzen dira, baina 2015ean amortizazio eta interesetan aurreko urtean baino 100.000 euro gitxiago gastauko dabez.

Egoera finantzarioa hobetuzten

Aurrekontu honek indarrean dagoan doitze plana jarraituten dauala dinoe Udaletik eta bertan agertzen diran helburuak lortzea eta gaintzea ahalbidetzen dauala. "Zorra jeitea eta egoera ekonomikoa normalizetea gure helburua izan da eta neurri handi batean lortu dogu. 2015ean gastu finantzarioa nabarmen jeitsiko da, eta zor-helburua 2015ean lortzea espero dogu".

UBIDE

Ubidek onartu ditu bere 2015erako kontuak

Erredakzioa

Alkarlanien taldearen aldeko botoak eta EAJ-PNVren abstenziogaz, aurrera atera ziran igazko abenduan 2015erako kontuak Ubiden. Honeen arabera, Udalak 331.703,23 euro izango ditu kudeatzeko.

Funtzionamenturako behar dan diruaz gainera, inbersinoetarako dirua be badago Ubideko kontuetan. Holan, bideak asfaltetako 91.834,23 eurotako diru partidea dago. N-240 kamino zaharra as-

faltuko dabe diru horregaz.

Egoera finantzarioari jagokonean, Ubideko Udalak 2005ean, 15 urterako eskatutako mailegu bat pagetan dago. 36.032,39 euro geratzen dira ordainduteko.



Lydia Zapata Peña, EHUko arkeologia departamentuko irakaslea urtailaren 4an hil zan. Arkeologia munduak profesional handia galdu dau, eta ezetu eben guztiak laguna. Arratiak eta BEGITUK gauza biak.

Agur Lydia

Joseba Rios

17 urte dira Lydia Zapata ezetu neba. Sasoi haretan bera zan Kortezubin dagoan Kobaederrako indusketen zuzendarietarikoa bat. Haxe izan zan be nire lehenengo historiaurreko indusketea eta berari esker lanbide honetan emon nebazan neure lehenengo urratsak. Ordurako, jada, Lydia nazinoarteko mailako ikerlaria zan. Aztarnategietan agertzen ziran ikatz zatitxoak, haziak eta landareen zatiak aztertzea zan bere espezialidadea, baina bere ikerketa objektuak historiaurreko andra eta gizonak ziran, historiaurreko jentarteak, alegia. Berari esker jakin dogu noz eta nola hasi zan nekazaritza Euskal Herrian edo zein izan dan basoaren aldaketea atzen 10 mila urteetan. Bera izan da, atzen hamarkadetan, Euskal Herriko historiaurreko arkeologian kontzeptu eta metodologia aurreratuenak ezarri ebazanetariko bat.

Atzen urteotan Lydiak zenbait proiektutan egin eban behar, besteak beste 2013an European Science Foundation-ek finanziautako Paleolito sasoiako landareen erabilera

ikertzeko proiektuan. Honez aparte, Euskal Herriko indusketa proiektu gehienetan hartu eban parte landareen makro-aztarnak aztertzeke, adibidez Arratiako Axlor edo Arlanpe kobetan.

2006an Dimako Baltzola aztarnategian hasi zan indusketak egiten. Hor, Barandiaranen ildoak jarraituz, atzen ehiztari-bilatzaileen aztarnak topatu gura ebazan. 2011ra arte egon zan hor, arkeologo talde baten buru, Arratia bailarako iragana aztertzen. Indus-

keta hareei esker, Baltzolako koba sasoi desbardinatan erabilia izan zala jakin dogu: Goi Paleolitoan eta Brontze Aroan, hain zuzen be. Lydia ete bere taldearen lanari esker, Arratian bizi ziran atzen ehiztari-bilatzaileen bizimoduak ezetuteke sano aztarnategi garrantzitsua bilakatu da Baltzola. Harrezkerotzik, indusketa honetatik lortutako datuak eta material arkeologikoak aztertzen ibili da Lydia. Seguru gagoz berak hasitako lanak jarraipena izango daua.

Lydiaren heriotzeagaz balio handiko arkeologoa, konpromiso handiko pertsona eta lagun mina joan jaku.

Ez zaitugu ahaztuko, Lydia.



IGORRE

Jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako epea hilaren 23ra arte zabalik

Erredakzioa

Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketarako proiektuak aurkezteko epea zabalik dago urtailaren 23ra arte. Jai Batzordeak antolatuten dauan lehiaketan parte hartzeako Igorrekoa izan behar da. Kartelean derrigorrez agertu behar da testu hau: "Igorreko jaiak 2015

Bagilaren 5etik 14era". Aurten, epaimahaiaren orde, bozkaketa egingo da eta boto gehien jasoten dauan kartela izango da irabazlea.

Proiektuak Igorreko udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira, papelean (A3 tamainuan) edo ordenadorez eginda badago CD baten.

Saria

Sari bakarra dago, 200 euro komertzioetarako gastetako. Jai Batzordeak martiaren 13an emongo dau jakitera kartel irabazlea zein izan dan.

Igorreko Jaietako
Kartel Lehiaketa



946.319.008
658.195.091

Udagaien eta neguko kolezino barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera
www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barritik janzen zaitu

LEMOA

Eguneroko gauzak euskeraz egiteko aukera gehiago

Euskerearen Egunean Lemoako zazpi saltokik euskera bultzatzeko hitzarmena sinatu eben Udalgaz. Nerea Ozerin Tresnak Suministros Industrialeseko gerenteagaz eta Opel Ibaiganeko Pedro Betzuenegaz egon da BEGITU hori zelan gauzatuko daben jakiteko.

Erredakzioa

Nerea Ozerin

Euskerearen Egunean hitzarmen bat sinatu zenduen Udalgaz euskera bultzatzeko. Zer dino hitzarmenak eta zergaitik gura izan dozue hau sinatutea?

Beti izan dogu gogoia gure negozioa euskalduntzeko eta Udalgaz sinatu dogun hitzarmenak lagunduten deusku horretan. Izen komertziala, errotulo nagusia eta ordutegia euskeraz, edo euskeraz eta gaztelaniaz, ipiniko doguz. Baita barruko jenteaurreko errotulazioa, ageriko idatziak, oharak, prezioak, etiketak... Publizitatea egiterakoan batzuetan hizkuntza biak eta besteetan euskera erabiliko dogu.

Telefonoz hasikerea eta agurra euskeraz, eta bezeroakazko hartu-emonetan euskaldunakaz euskeraz egingo dogu. Erakundeakazko agozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz, edo euskeraz eta erderaz egingo doguz.

Behargin barriak kontratetean euskaldunak izan daitezala ahaleginduko gara eta beharginak euskalduntzeko erreztasunak emongo doguz.

Hau da Udalgaz sinatu dogun hitzarmena eta urte biko iraupena izango dau, eta urtean behin egingo jako jarraipena.

Lehenago be egon dira merkataritza euskalduntzeko kanpainak, ezta? Parte hartu dozue haurretan ala hau da lehenengoa?

Lehenago be egon dira merkataritza euskalduntzeko kanpainak, baina nik ez dot askorik ezetu eta ez dot uste hain sakonak izan diranik.

Zeintzuk dira zuen bezeroen hizkuntz-ohiturak? Euskaldun guztiak ez dabe euskeraz egin-erosketak egiten datozean, ezta? Zelan bultzatuko dozue euskera zeuen eguneroko jardunean?

Egunerokoan bezeroakaz euskeraz egiten dogu. Telefono harrera eta agurra beti izaten dira euskeraz. Tartean euskalduna ez danari, gaztelaniaz, noski, eta euskaldunai euskeraz, nahiz eta oraindino ez dakigun gure produktu guztien euskerazko izenak.

Ahaleginduko gara produktuen izenak euskeratzen barme errotulazioetan. Erosten dogun guztia gaztelaniaz edo ingelesez dator katalogoetan eta hori guztia aldatzeko laguntza beharko dogu. Udalak opatutakoa gustura hartuko dogu.

Lehendik konzientziauta egon arren, hitzarmen bat sinatzeak eta beste batzuekaz alkarlana egiteak lagunduko dau motibazioari eusten ezta?

Hitzarmenak bultzatu egiten gaitu eta beste batzuekaz alkarlana egiteak motibatu egiten gaituala argi dago. Bidean batera joateak erreza-ego egiten dau dana, ezta?

Zer iruditzen jatzu ekimen hau? Ze garrantzia dauka merkataritza euskera bultzatzeak euskerearen normalizaziorako?

Euskaldunak gara eta gure negozioa euskeratzen eta euskaldunen artean



Nerea Ozerin.

hartu-emonak euskeraz eukiten lagunduten deusku ekimen honek.

Uste dozu eraginkorra izango dala? Zeintzuk dira zuen helburuak?

Uste dot eraginkorra izango dala eta gure barme prozesuak euskeraz ipinteko be lagunduko dauala.

Hemetik urte bira sinatutako eta

asmatutako herena ondo eta gano-raz egitea lortzean badogu, guretzat helburua beteta dago. Gero aurrera jarraituko dogu, guztia garatu arte, duda barik.

Ez dot itxi gura aitatu barik, ezta eskertu barik, Euskera Teknikariak egin dauan behar ona. Eta izan dauan pazientzia.

Erredakzioa

Pedro Betzuen

Euskerearen Egunean hitzarmen bat sinatu zenduen Udalgaz euskera bultzatzeko. Zer dino hitzarmenak eta zergaitik gura izan dozue hau sinatutea?

Orain hasi da gorputzen baina hau aspaldiko gauza bat da. Lehenago be egin zan hemen ahalegin bat baina ez eban urten. Bi edo hiru komertzio egon ginan euskera bultzatzeko eta batzuek badaukaguz hemen eskatuten diran gauza batzuk aspalditik. Esaterako, euskeraz daukaguz beharreko orriak eta fakturak. Tailerreko letrekoak be euskeraz daukaguz. Horreek danak orain urte batzuk egin ziran, baina urte batzuetan hau parauta egon da.

Ontxe hasi gara mobimentuan atzera be, ea lortzean dogun herria euskerearen zurrunbiloan sartzen eta hasten garan euskera gehiago egiten.

Lehenago be egon dira merkataritza euskalduntzeko kanpainak, ezta? Parte hartu dozue haurretan ala hau lehenengoa da?

Bai, bi egon ziran baina ez eben aurrera egin. Jente gitxi apuntatu zan,

eta...

Euskaldun guztiak ez dabe euskeraz egiten konzesionariara datozean, ezta? Zeintzuk dira zuen bezeroen hizkuntz ohiturak?

Ezagunak egiten dabe euskeraz, baina hona hainbat erdaldun dator. Arratian behar egiten dauan jente asko kanpotik dator, Bilbotik, berbarako; eta hemen ixten dau kotxea eta joaten da beharrea eta gero dator kotxe bila. Hau da, erdaldun asko dagoz hemen bueltaka.

Gure jentea datorrenean gu beti hasten gara, ni neu bai behintzat, euskeraz. Euskeraz segiduten bada-be, ondo, baina hainbat erdaldun dago.

Zelan egingo dozue euskera

bultzatzeko eguneroko jardunean?

Ahaleginduko gara harrerea euskeraz egiten eta ahaleginduko gara beharrea euskera bultzatzen (aurrekontuak, mobimentuak eta abar).

Lehendik konzientziauta egon arren, hitzarmen bat sinatzeak eta beste batzuekaz alkarlana egiteak lagunduko dau motibazioari eusten ezta?

Merkataritza, denda txikitzen batez be, ez da egiten euskeraz, erdera piloa egiten da. Herrian bueltan bueltan kanpoko jenteagaz asko gabiz, baina egunero eta herriko dendetan dabilen jentea ez da berbera. la lortzean dogun danok alkatutea eta euskera bultzatzea.

Zer iruditzen jatzu ekimen hau? Ze garrantzia dauka merkataritza euskera bultzatzeak euskerearen normalizaziorako?

Pentsaurik Arratian gagozala eta Arratia euskalduna dala eta Lemoa izan dala herri bat non euskera nahiko galduta egon dana, ba garrantzia handia emoten deusat nik, lemoaztar moduan euskeraz egiteari. Arratian euskera ez badogu mantentzen... Arratia izan beharko litzateke euskera gehien egiten dauan eskualdeetako bat.

Zeintzuk dira zuen helburuak? Uste dozu oraingo honetan kanpainak aurrera egingo dauala?

Bai. Uste dot Udaletik bultzada handia emon jakola. Batzordea egin da, eta ikusten da Euskera Teknikariak ekimen fuerteagoakaz datozela. Nik pentsetan dot oraingoan aurrera egingo dauala.

Euskera gurea da eta bultzatu behar dogu. Ea danon artean euskera gehiago egiten dogun!



Pedro Betzuen.

<p>Gure ikastetxeak</p> <p>Euskalduna kalidazkoa</p> <p>herrikoa</p>	<p>J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p>	
	<p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p>	<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p>	
	<p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p>	<p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p>	
	<p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>	

ARRATIA



Zirko tailerra.

Ikastaroak urtea hasteko

Erredakzinoa

Ikasturtea urrietan hasten bada be, lekua egon ezker izena emon daiteke hainbat ikastarotan urtailan. Gainera, ikastaro barriak be antolatuten dira herri askotan. Holan, Areatzan, Arratiako andra alkarteai zuzendutako *Coaching* tailerra antolatu dabe eta Lemoan, bizikleten mekanika ikasteko tailerra, berbarako.

Arratia mailan dagozan andra konprometiduen hartu-emonak eta sarea indartuteko, Areatzako Emakume Foroak *Coaching* tailerra antolatu dau Maru Sarasola Soziologia Politikoan doktoarearen eskutik. Hilaren 21ean hasi eta ze-

zeilaren 14an amaituko da. Guztira 12 ordu izango dira eta eskolak Foroak Areatzan daukan gelan, udaletxeko 3. solairuan izango dira.

Autodefensea eta eskaladea Igorren

Igorren, hiruhilabeteko honetan, honako ikastaroak egin daitezke: Tai Chi, Jantza afrikarrak, Argazkigintza, Diseinu grafikoa eta Zirko ikastaroa. Literatura txokoan, barriz, urtailetik abendura arte hartu daiteke parte, hilean astelehen baten, 30 euro ordainduta edo doban Lasarte Aretoko txartelagaz. Antzergintza familian, Gazteentzako akrobazia aereoak eta Yoga be egin daitezke Igorren.

Bardintasun eta gazteria arloak ikastaro bi antolatu ditue neska gazteentzat: autodefensa ikastaroa zezeilaren 28an, eta eskaladea.

Bizikletan mekanika eta DJ ikastaroak Lemoan

Lemoako Udalak ikastaro batzuk abiarazo ditu urteari hasikerea emoteko. Bizikleten mekanika eta DJ ikastaroa, berbarako. Esne Beltza taldeko Zigor DZk emongodau DJ ikastaroa, Jubiladuen Etxeko goiko aretoan, urtailaren 13tik martiaren 8ra. Martitzenetan izango da 19:00etatik 20:30era.

Mekanika ikastaroa urtailaren 14tik martiaren 4ra izango da, eguaztenetan 19:00etatik 21:30era, zortzi saio guztira. Ikastaro hau, Elizondoko Kultur Gunean izango da.

Barazkiak balkoian ekoizteko ikastaroa be ipiniko dabe martxan Lemoan, baita artisauek egiteko be. Parte hartzeako izena Udaleko Kultura Zerbitzuan emon behar da hilaren 12tik 23ra.

Diman matrikulea zabalik

Diman, zezeila-maiatza bitarteko ikastaroetan parte hartzeako izena emoteko epea zabalduko da hilaren 19tik 29ra. Ikastarook Gimnasia hipopresiboa, Yoga, Pilates eta Eskulanak dira. Gimnasia hipopresiboa astelehen eta eguazten arrastietan edo eguazten goizetan eskeintzen da; eskulanak martitzen goizetan; pilates martitzen eta eguen arrastietan eta yoga eguazten goizetan. Taldeak sortzeako gitxienez 8 pertsonak emon behar dabe izena.

IGORRE

Igorre kantarik kale eta tabernak animauko dauz hilaren 16an

Erredakzinoa

Arrastiko 20:00etan, Gau Lora tabernatik hasita, Sergio, Hegazkina, Ikusgarri eta Kirikiño tabernetatik kantuan ibiliko dira Igorre kantariak eta eurakaz kantau gura daben guztiak. Taldean abesteko tradizioa berreskuratzeko asmoagaz eta euskal kantauak ez ahazteko, antolatu dabe ekimen hau.

Urtea hasteaz batera euskalduntzeari begirako kanpaina bi be antolatu ditu Igorreko Euskera Zerbitzuak. Bata, euskeraz ez dakienak euskalduntzera erakarteko, eta bestea, Berbalagun.

Euskerea ikasteko diru-laguntzak arautzen dituan ordenantza barria indarrean dago eta horren

bidez, matrikulearen zenbatekoaren % 80ko diru-laguntzea mantenduten da eta oinarriko euskera maila lortzeako ikasleai begira, matrikulearen % 100 finantzauko da. Horregaz batera, guraso eta merkatariak begirako euskera ikastaroak eskeintzen jarraituko dabe. Merkatariak euren beharretara egokitutako ordutegia daukie, astean bitan eguerdietako tartean eta guraso taldeak goizeko ordutegia dauka.

Berbalagun

Berbalagun talde gehiago sortzeako asmoagaz, martxan dagozan Berbalagun taldeen barri emongodau Euskera Zerbitzuak, interesa daukan edonor ondoen jatorri taldera hurreratu daiten.

Taldeetako bat martitzenetan alkartzen da Gau Loran, arrastiko 18:00etan, eta bestea barikuetan, 19:00etan, Kultur Etxean.



Aita santua bazkaltzera konbidau eban zeanuriztarra: Justo Artaraz

Jose Mari Kortazar

Ez dakit arratiar asko izango dan aita santuagaz batera bazkaldu dauanik, baina aita santua bera bazkaltzera konbidau dauana, bat bakarra, Justo Artaraz zeanuriztarra. Eta ez antzerki lan baten, Belenen baino, 2000. urteko martian, Juan Paulo II.a Palestina bisitetan joan zanean.

Zeregin bikotxa eukan Juan Paulo II.ak egun haretan Belenen: errefujiaduen eremu bat bisitatu eta Belengo basilika aurreko plazan mezea ospatu. Indarrak batzeako, bazkaria Belengo frantziskotarren komentuan. Eta nor egoan komentuko arduradun edo jagole? Zabaleako (Zeanuriko) seme Justo Artaraz frailea.

"Un vigoroso vasco" idatzi eban Argentinako kazetari batek Zeanuriko seme honen gainean. Zemendiaren 9an hil zan Justo Jerusalemen, eta gaur gogoratzen dogu lerro honeen bitartez. Zemendiaren 2an, telefonoz deitu eutsan bere arreba Eladik, bere urtebetetzea zala-eta, zorionak emoteko: "Luzaroan egon ginan berbetan. Beti hantxe lurperatzea gura izan dau". Bai ba, astebete geroago hil zan berak hain maite eban Lur Santuan.

Gaztetatik Lur Santuan, hango toki askotan egon zan fraile eta jagole edo arduradun. Baina berak Siriako kristauak gogoratzen ebazan gehien. Egoera gogor baten zintzo eta leial jarraitzen eben bere kristautasunean. "Gehien maite izan dodaz Sirian egondako urte biak, hareek kristauak!" aitortu eutsan Zeanuriko Ander Menterolari, Jerusalemen egin eutsan bisita baten.

Ordurako Justo gaixorik egoan, enfermerian. Lau urte dira pulmonia gogor batek harrapatu eta gaixopean hartu ebala. Gaixoen artean be laguntzen eban, mezea emon eta jentea animauz.

Zeanuri beti eukan gogoan, eta jakin-minez itanduten eban bere sorterriko eta Andra Mari parrokiako gorabeheren gainean. Gaur egun hain maite eban Lur Santuan dago lurperatuta. Jerusalemgo zeanuriztarra.

IGORRE

Hiru otzara emon ditu AMEK



Erredakzinoa

Arratiako Merkatarien Elkarteko kideen produktuak osotutako hiru otzara zozketatu ebazan alkarteak Gabonetan. Zozketea abenduaren 26an izan zan eta saridunak Maria Oliva Sanchez, Begoña Herrera eta Izaskun Anguiano izan ziran.



ARGAZKI ERREPORTAJEA

Industriaren memoria

Arratia eta Zeberio landa eremuak izan arren, industrian behar egiten daben arratiar eta zeberioztarrak baseritik bizimodua ateratzen dabenak baino gehiago dira. Aspalditik gertatzen da hori, eta ekonomia arlo honen gorabeherak aztarnak itxi ditu geure paisajea. Behin martxan egon ziran eta orain transizino fase baten dagozanak, edo aktibidadea aspaldian bertan behera itxita eta paisajeagaz bat egin daben eraikuntza batzuk dakarguz orriotara.



Incoesa Bedian.



Tallereta Lemoan. Gaur egun Udalak biltegi moduan erabilten dau.



Negarra Lemoan.



Chatarras y Metales Pomar Igorren. Argazkia: Igorreko Udala.

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landerren O Jabetzen!

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE 17 - IGORRE

OPEL

ibalgama, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOIA (Bizkaia)
Tel. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15



Talleres Emen Areatzan.



Maderas Iruarrizaga Igorren.

Argazkia: Igorreko Udala.



Tailerra izandako eraikina Zeanurin.



Zeberioko pabilioia.



Igorreko "Bakaladerea" eritxana.

Argazkia: Igorreko Udala.



Tarabusi Igorren.

Argazkia: Igorreko Udala.

FUTBOLA

Arratia Kirol Elkarteko futbol jokalarien kromo bildumea salgai ipiniko da

Arratia Kirol Elkartek 2014-2015 denporaldiko kromo bildumea ipiniko dau salgai. Bilduma horrek maila guztietako jokalaria, entrenatzaileak eta zuzendaritzako kideak erakutsiko ditu koloretako argazkietan. Aurkezpena hilaren 17an izango da Urbieta futbol zelaian, goizeko 10:30ean hasita eta egun osoan zehar. Trikitixea, taloa eta beste ekitaldi askok ipiniko dabe jaigiroa bertan.

Erredakzioa

Orain arte, Lehen Mailako taldeak bakarrik egin eikien bere jokalarien kromo bildumea. "Hemendik aurrera, Cromogal-eri esker, gure herriko eskoletako jolastorduetan

umeak ez dira idolo handien kromoai begira egongo. Eurak edo euren lagunak agertzen diran kromoan bila ibiliko dira eta. Herriko umeak izan daitezke kromorik estimaduenetakoen irudia" dinoe Arratia Kirol Elkartetik. Bilduman,

taldearen historia txikia be izango da.

Kirol argitalpenak egiten dituan Galiziako Cromogal enpresek bideratutako proiektuak ikusgarritasuna emon gura deutso Arratia KEari. Horrez gain, alkararen eta inguruko gizartearen arteko loturak estutu gura dabez ekimen honegaz. "Umeak zein helduak asebeteko dituan lan honek kirol jarduera (bizimodu osasuntsua izateko oinarizkoa dana) talde lana, ahalegina, irmotasuna, adiskidetasuna, hobeia izateko grina eta komunikazioa erakusten ditu. Bakotzak bere aletxo ipinita osotu dogun bildumari esker, jokari, bazkide, zuzendaritza kide, guraso, tekniko eta babesleok ilusino bera izango dogu".

Igorreko Urbieta futbol zelaian eta baimendutako saltokietan egongo da salgai Arratia KEko kromo bildumea.



Umeak futbolean Urbieta futbol zelaian.

PELOTEA

Arratia-Nerbioi E Txapelketaren finalak Zeanurin izango dira**Erredakzioa**

Arratia-Nerbioi Eskolarteko Pelota Txapelketaren finalak urtailaren 17an eta 24an izango dira, Orozkon eta Zeanurin hurrengo hurrengo. Hilaren 17an B Txapelketaren finala izango da eta 24an, E Txapelketaren finala.

E Txapelketaren finala Arratia-Nerbioi eskolarteko pelotearen urteroko jaia izango da. Eskola eta pelotari guztiak desfilea egingo dabe 15:30ean, gaztetxoeren partiduak hasi aurretik. Goizean

Kadete, Gazte eta Seniorren finalak izango dira 11:00etatik aurrera, arrastian, barriz, desfilea amaitutakoan, 16:30etik aurrera Prebenjamin, Benjamin, Kimu eta Ume kategoriako finalak. Ondoren sari banaketea egingo dabe.

Zeanurik lau txapel lortzeako aukerak

Aurten, Zeanurik dauka Arratiako eskolen artean txapel gehien lortzeako aukerea: lau hain zuzen be. Lemoak, Dimak eta Areatzak be jokatuko dabe final bana eta, beraz, txapel bana eskuratzeko aukerea be badaukie.

Zeanurik Prebejamin, Kimu, Gazte eta Senior kategorietan jokatuko dau finala. Lemoak Benjamin kategorian, Dimak Ume kategorian eta Areatzak Gazte kategorian. Kategoria honetan Zeanuri vs Areatza derbia izango da finalean.

B Txapelketea Orozkon

Aurreko zapatuan, B Txapelketaren finala izango da Orozkon arrastiko 17:00etan. Final honetan Arratiako ordezkari bakarra Zeanuri B taldea ume kategorian izango da. Usansolo B-gaz neurtuko dira Zeanurikoak.



"Begituten begituten jarraituko dogu gure begiak zeuon begietara. Begituten begituten zeuon begiak gure begietara begituten begituten egongo gara". Gontzal Mendibil



FUTBOLA

Urteko lehenengo partiduak irabazi dauz Arratiak

Ainhoa Duñabeitia

Andrazkoen lehen taldeak itzel hasi dau urtea, partidu bi jokatu dabez eta bietan boltsikoratu dabez 3 puntuak. Hilaren 3an Lantaron izan eben aurkari arratiarrak, 5 gol egin ebezan gureak, Lantaron 2, Arratia 5. Hilaren 11n etxean jokatu eben hurrengo partidua Berriotxoaren kontra. Norgehiagokea arratiarren-tzat izan zan, Arratia 2, Berriotxo 0. Hurrengo partiduan Betiko Neskak taldea izango dabe aurrez aurre, partidu honegaz bigarren bueltea hasiko dabe neskek.

Gizonezkoen lehen taldeak be partidu bi jokatu dauz eta biak irabazi. Honek be urtea ederto hasi dabe. Etxean jokatu eben urteko lehen partidua Zalduaren kontra,

hilaren 4an hain zuzen be. Markagailuko atzen emoitzea, Arratia 1, Zaldua 0. Atzen neurketan be garai-pena lortu eben. Etxetik kanpo izan eben norgehigokea eta San Ignacio taldea aurrez aurre. Neurketea 0-1 amaitu zan, 3 puntuak gureak eroan ebezan. Hurrengo partidua Galea A-ren kontra izango da.

Gizonezkoen bigarren taldea be fin dabil eta ez dau urte hasikera honetan neurketarik galdu. Bi jokatu dauz, bata irabazi dau eta bestea bardindu. Gernika Sporting B taldeari irabazi eutsien arratiarrak partidua, 1 eta 2 eginaz. Hilaren 10ean be partidua izan eben, neurketa honetan bardinketea lortu eben, Moraza 0, Arratia B 0. Hurrengo astegoienean, hilak 17, Ermuako Anaitasuna izango dabe aurkari.

TXIRRINDULARITZEA

Arratiarrak ez hain ondo Gijonen

Erredakzinoa

Gijonen urtailaren 11n jokaturako Espainiako Txapelketan, euskal ziklo-krosleriak sano saio ona egin arren, arratiarrak ez eben lortu lehenengo postuetan heltzea helmugara. Euskaldunak sei urrezko domina, zidarrizko bi eta brontze bat lortu eben. Euskadiko selekzioa Junior eta Elite mutilen lasterketetan nagusi izan zan, kategoria bietan lehenengo postu biak lortu ebazan eta; nesken lasterketetan, bigarren geratu zan Euskadiko selekzioa.

Arratiarren artean, posturik onena lortu ebana, Master50 kategoriako Manu Quintanilla izan zan, zortzigarren eginda. Naia Alzola, hamaikagarren postuagaz konformau behar

izan zan "aureratxoago nahi, baina jausi eta maneta bat apurto jatan" azaldu eban Dimakoak. Mikel Epalzak Master30ean 17. egin eban, M35koen artean bederatzigarren.

Murias taldearen aurkezpena

Urrietan Bilbon aurkeztu baeben be, Arratiako Ziklista Elkartek bultzatutako Continental kategoriako Murias txirindularitza talde profesionalaren Arratia mailako aurkezpena egiteko asmoa azaldu dau Juan Mari Zurinaga AZEko presidentek. Ekitaldia ez dago guztiz lotuta baina "seguruenik" hilaren 24an izango da Igorreko Kultur Etxearen ondoan eguerdian. Taldeak, hilaren 26an, ekingo deutso bere lehenengo lasterketeari. Mallorcano itzulia izango da lasterketa hau.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrek-ek 25 urte

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek ez dabe euren 25. urtea hasi, gura izango eben moduan; urteko lehen partidua, hilaren 10ekoa, galdu egin eben eta. San Txismeko errugbi zelaiari jokatu eben Getxo Artea B taldearen kontra. Partidu txarra zekorrena, jentez justu dabiz eta horrek kalte egin deutse arratiarrai. Halanda be, partiduan gogotsu eta gogor ibili ziran.

Atzen emoitzea Arratiko Zekorrek 13, Getxo Artea B 40.

25. urteurrena

Aurten Arratiko Zekorrek taldeak 25 urte beteko dauz eta hori ospatzeko hainbat ekintza antolatuko ditu taldeak hilean-hilean urte osoan zehar. Kirolagaz eta kultureagaz zerikusia izango dabe ekintzok. Egitaraua zehaztuteko dago.

MENDIA

Jubiladuak Igorreko mendi ibilbideak seinaleztatu dabez

Jubiladuen alkartean astean behin baino gehiagotan mendian dabilen jentea dagoala konturatuta, Igorreko Udalak jentek lekurik interesgarrienak ezetuteko ibilbideak egiteko eskatu eutsen. Holan, GPSa hartuta, zazpi ibilbide egin dabez, diptiko baten agertuko diranak.



Jesus Mari Anzola eta Jabi Zuluaga.

Erredakzinoa

Udalak, jentek udalerrira ezetu dagiala bultzatzen dagoanez, ho-

rregaitik jo ebela eurengana dino Jabi Zuluaga Jubiladuen alkarteko presidentek. "Udalak diptiko bat atera gura dau eta guk zazpi edo

zortzi ibilbide seinalizau doguz GPSagaz". Ibilbidea egin aurretik, alkarteko boluntario batzuk ibili ziran bideak garbituten; leku batzuetan, jentea eta ganadua ez dabilen lekuetan, oteak eta sasiak bideak zarratu egiten dabez eta.

Martxak

Abenduan, edade guztietako jententzako hiru marxa antolatu eben alkartekoak Igorre inguruko auzune eta mendiak ezetutera emoteko. Arrakasta handia izan eben ibilaldi hareek eta atzenengo egunean jentek gehiago antolatuteko eskatu eutsen. Hori dala eta, hilean behin holango ibilaldi bat antolatutea ebatzi dabe alkartean. Martxak hiru ordu edo hiru ordu t'erdi ingurukoak izaten dira.

Martxa honeen helburua, batez be, ibilteko ohitua bultzatzea da, eta jente guztiarentzat zabalik dagoz "belaunaldiartekoa izatea gurako geunke, jubiladuok antolatu baina edade guztietako jentea etortea" dino Zuluagak.

Zahartze aktiboa

Igorreko Jubiladuen Elkartean zazpihunen bazkideetik gora dagoz. Alkartek aukera barriak emon gura deutse bere bazkideai "ez daitezela bakarrik izan Benidorm-era joatea edo... Apur bat gura dogu jentea mobidu daiteela, mendira edo interneteko klaseetara edo holango gauzetara" azaldu deutso BEGITTURI Jesus Mari Anzola alkarteko idazkariak.

BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIARAKO TRANBIA ELEKTRIKOA. 50 URTE ARRATIAKO TRANBIA BARIK

LAGUNTZABALEAK

ERAKUSKETEAREN ZEANURIN URTAILAREN 30etik ZEZEILAREN 10era
Astelehenetik barikura 17:00etatik 20:00etara
Zapatu eta domeketan 11:00etatik 13:00etara
Inaugurazino ekitaldia urtailaren 30ean
Manterolatarren Erakusketa Aretoan 19:30ean
Ondoren berbaldia Kultur Etxean
Jon Urutxurtu eta Juanjo Olaizola

ERAKUSKETEAK

Arratiako tranbiaren irudiak eta maketak ikusgai Zeanurín



Tranbia Zeanurín.

Argazkia: Felipe Manterola.

2014ko zemendian Arratiako tranbia desagertu zanetik 50 urte bete ziran. Hori dala eta, Bilbotik Durango eta Arratiarako tranbia elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik izeneko erakusketea izango da urtean zehar Arratiako hainbat herritan. Zeanuritik abiatuko da erakusketa hori eta geralekuak, Igorren, Lemoan, Galdakaon eta Areatzan izango ditu. Artean akaso be bai, baina hau zehaztuteko dago ondino.

Erredakzioa

Zeanurín, urtailaren 30etik zezeilaren 10era, Manterolatarren Erakusketa Areatan egongo da Arratiako tranbiaren erakusketea. Jon Urutxurtu erakusketearen komisarioak, eta Juanjo Olaizolak, Burdinbidearen Museoko Zuzendaria eta Arratiako tranbiari buruzko liburuaren egileak egingo dabe aurkezpena Erakusketa Areataren parean dagoan Zeanuriko Kultur Etxean, arrastiko 19:30ean. Ondoren Olaizolak Arratiako tranbiaren historia eta garrantziaren gaineko berbaldia egingo dau.

Asteleheneetik barikura 17:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan 11:00etatik 13:00etara zabalduko da erakusketea.

Zeanuritik Igorrera pasauko da erakusketea eta hango Kultur Etxean egongo da zezeilaren 13tik 27ra. Lemoan, Galdakaon eta Areatzan be egongo da gerago eta urritik abendura Bilboko Foru Liburutegian.

Tranbiaren maketak eta 200 argazki inguru

Erakusketearen ardatza 21 pa-

nelek osotuten dabe eta panel horreetan gai honeek azalduen dira: Tranbiaren hastapenak munduan eta Euskal Herrian; Arratiako tranbiaren jatorria; Tranbiaren ibilbidea herriz herri: Bilbotik Durangora eta Bilbotik Zeanurira; Lemoa: tranbiaren bihotza; Tranbiabidea eta material mobikorra; Tranbiaren tailerrak eta kotxetegiak; Merkantzien garraioa; Bidaiarien garraioa; Tranbiaren hiltoria; Tranbiaren agurra; Tranbiaren azken aztarna: Garbe auzoan (Igorre); eta Kronologia.

Panelotan argazkiak daukie protagonismo berezia, 200 inguru dagoz, baina baita be heme-roteka dokumentuak, grafikoak, bileteak edo txartelak eta abar.

Tranbien maketak eta zinema irudiak be egongo dira ikusgai: Felipe Manterolak hartutako irudi batzuk, Julian Elejostek egindako beste batzuk eta Nodoaren irudiak. Txomin Artete tranbiako kobratzaileari orain dala 10 urte egindako alkarrizketea be entzun ahal izango da.

Arratiako ikurra

Tranbiak bere atzen biajea egin

ebanetik 50 urte pasau diranean, zelanbaist Arratiako ikur bat izaten jarraituten dau eta erakusketa hau antolatuteko jente askoren parte hartzea eta laguntzea izan da: batzuek argazkiak itxi dabez, beste batzuek informazioa emon, beste batzuek diruz lagundu...

Dana dala, idea Jon Urutxurturena izan zan. "Orain dala 10 urte beste erakusketa apalago bat egin genduan Lauaxeta Ikastolan ikasleakaz batera, eta ordutik hona materialak batzean joan naz. Zertu Kultur Elkarteoai komentau neutsen desagerpenaren 50. urtea betetzen danean zeozer egin ahal dan, Arratiako tranbia ezetu eben arratiarrentzat benetako ikur bat izan zalako. Eta hortik sortu zan erakusketa hau egiteko idea" azaldu deutso BEGURI Jon Urutxurtu erakusketako komisarioak.

Zertu Kultur Elkarteak antolatzen dau erakusketea, eta erakusketa hau gauzatu daiten beste batzuen laguntzea be jaso dau: Foru Aldundia eta erakusketea egingo dan Arratiako Udal eta enpresa batzue-na (Ilunbe, Gorosti, Elorri, Atutxa

BERTSOLARITZEA

Zeanuriko bertso saioa hilaren 18an izango da



Iturriaga eta Elortza aurten be Zeanurín egongo dira.

Erredakzioa

2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean izandako bertsolari bi, Etxahun Lekue eta Onintza Enbeita, beste lau bertsolari handigaz batera egongo dira hilaren 18an Zeanuriko frontoian. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Sustrai Colina izango dira beste lau bertsolariak. Egaña, Elortza eta Iturriaga egon ziran igaz be Zeanuriko frontoian.

Gai jartzaile beharretan Jabi Olibares "Orue" ibiliko da. Hitzordua arrastiko seiretan da.

Arratiako Bertso Eskolak Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz antolatuten dau bertso saio hau urtean urtean eta puntako bertsolariak etorten dira Zeanurira. Publikoak be ez dau kale egingo. Izan be, Arkaitz Estiballesek BEGURI esan eutsan moduan "Arratian bertsozaletasuna egon badago, eta Zeanurín bereziki handia".



Mendizaleen atzen agurra (1964-XI-29). Tranbia Ugunaga ingurutik. Argazkia: "Cecilio hijo". El Correo.

Aseguroak...), hain zuzen be.

Tranbien loraldi modernoa

Urutxurturen arabera, "erakusketa honek gogoeta egitera lagunduten deusku. Aurkezpeneko diptikoan esaten dan moduan, orain dala berrogeta hamar urte entzun baziran Bilbon, tranbiaren abiapuntu eta helmuga, tranbia-

ren atzen kirrinkak, gaur egun Bilboko kaleak tranbia moderno eta ikusgarriak zeharkatzen dabez. Orain dala ez urte asko, toki askotan tranbiak kendu egin ziran automobilentzako enbarazu egiten ebelako eta gaur egun barriro tranbiak ipinten dabil. Hurren daukaguzan adibide bi Bilbo eta Gasteiz dira".

LEHIAKETEAK

Film laburren lehiaketaren sari banaketea Igorren



Erredakzioa

Igorreko Luzetu Barik euskerazko film laburren lehiaketaren sariak, urtailaren 16an bananduko dira Lasarte Aretoan. Saioa arrastiko bostetan hasiko da eta ume eta gazteen kategorian aurkeztutako lan guztiak ikusteko aukerea izango da bertan. Ondoren, seiretan, nagusien kategoriako txandea izango da. Aurten lan asko aurkeztu dira kategorian honetan eta sari banaketa ekitaldiko emonaldirako aukeraketa bat egin behar

izan dabe antolatzaileak.

Igorreko Udalak antolatutena dau lehiaketa hau euskerazko film laburren ekoizpena sustatzeko asmoagaz eta aurtengoa laugarren edizioa da. Igaz, Joseba Rodriguezen *Kanteik* lanak jaso eban film onenari saria nagusien kategorian; gazte mailan, Igorreko ludotekako taldeak jaso eban saria *Iruntsi dana* filmagaitik; Ibai Pujanaren *Ametsa* filmak egile barrien lanik onenari saria jaso eban eta *Leihoak* izeneko lanak, barriz, Arratiako egileen lanik onenari saria.

ANTZERKIA

Neil Simon-en antzezlan Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Neil Simon estatu batuarrak 1965ean idatzitako *La extraña pareja* antzezlanaren euren interpretazioa dakarre Txintxaun Kolektibokoak Igorrera, hilaren 31n, 20:00etan. Rosa Martinez-Alcoerren zuzendaritzapean, Aitor Arestik eta Aitor Berriok antzetzten dabez zineman Jack Lemmon-ek eta Walter Matthauk ezagun egin ebezan personajeak.

La extraña pareja, bizitzaren gorabeherak alkarregaz bizitera bideratuten dituan aspaldiko lagun biren istorioa da. Komedia honetan, bikote hartu-emon gatazkatsuak eta bakardadea, gai unibersalak

landuten dira. Gainerako aktoreak Aroa Blanco, Iban Mestraitua, Aitor

Pareja, Jose Manuel Perez, Raul Perez eta Lourdes Sanchez dira.



ERAKUSKETEAK

Zarauzko argazkiak Igorren

Erredakzioa

Urtailaren 29ra arte Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan, Ramon Serrasek Zarauzko hondartzan zehar egindako paseo bat ekarten dau gogora erakusten dituan argazkiak.

Ramon Serras (Zarauz, 1943) Zarauzko Fotografia Elkarteko fundatzailea eta Zarauzko Zine eta Fotografia Museoko, Photo-



Ramon Serras-en argazkia.

museum-aren fundatzaile eta zuzendaria izan da. Italia, Austria edo Estatu Batuetan egin ditu erakusketak eta nazinoarteko sariak be jaso ditu: Ingalaterrako

Birkeneak saria, Belgikako Europicamera saria, Poloniako Cracoviako Venus saria eta Camera Luxembourg saria, beste batzuen artean.

DUNBA

Oihana Kortazarregaz

Lemoako ikastetxean hezkidetzeari buruz ekintza asko egin doguz atzen urteotan eta igazitik proiektu berezia daukagu.

J.B. Eguzkitza Meabe ikastetxeko LHko 6. mailako ikasleak

Zemendian herrian Kirol Astea ospatuten zanez, hezkidetzat batzordeko arduradunak mendiko lasterketetan munduko txapelduna dan Oihana Kortazar ikastetxera ekarteko aukerea aprobetxau eben. Oihana Kortazar nor dan ez badakizue, esan behar dogu munduko mendiko lasterkari onena dala andrazkoetan. Pila bat lasterketa irabazi ditu, bai Euskal

Herrian eta baita mundu mailan be, adibidez 2011n Europako txapelduna izan zan eta 2012an munduko txapelduna Kilometro Bertikaleko Txapelketan.

Ikastetxera etorri zanean Lehen Hezkuntzako 4., 5., 6. eta DBHko 1. eta 2. mailakoak egon zan. Berak kirol minoritarioai buruz berba egin euskun, adibidez mendiko lasterketak, gizartean futbola eta antzeko kiroletatik aparte beste batzuk badagozala erakusteko.

Berbaldiko gai garrantzitsuena

izan zan andrak kirolean daukien parte hartzea eta zelan gizartean andrazkoen kirolari, gizonezkoen kirolari baino balio eta laguntza gitxiago emoten jakon. Neskak, gazteak diranean, zergaitik kirola egiteari ixten deutesien be kontau

euskun eta danon artean horren gainean egin genduan berba. Oihanak seme-alaba bi ditu eta horrek ze arazo sortu deutan kirolagaz jarraituteko azaldu euskun. Gure itaunak erantzun ondoren, kirola egitera animau



Oihana Kortazar Lemoako ikasleak.



ginduzan, batez be neskak. Talde guztiakaz argazkiak atera ondoren agurtu genduan. Saio polita izan zan eta gai inportantez berba egiteko aukerea izan genduan. Gainera munduko txapeldun euskaldun bategaz egon ginan eta hori egiteko aukera askorik ez da egoten.

Oihana Kortazarreari buruz gehiago jakin gura badozue begiratu bere webgunea eta han topauko dozuez datu interesgarriak eta argazki politik (www.oihanakortazar.com).

AGENDEA

URTAILAK 16
AREATZA

21:30ean Kate Cass Project-en musika keltikoa The Quiet Corner-en.

DIMA

17:00etatik 20:00etara, Boulderrean (rokodromoa) ateak zabalik jardunaldia. Eleiza aspiko lokalean.

IGORRE

Ramon Serras-en Zarutz argazki erakusketea Kultur Etxean hilaren 29ra arte.

17:00etan, Luzetu Barik euskerazko film laburren lehiaketaren sari banaketea.

20:00etan, Igorre kantari karitu-pote. Gau Loratik hasita.

Hilaren 23ra arte Jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako aukerea.

LEMOA

Hilaren 23ra arte, Ortua eta balkoia: zure barazkiak ekoiztu eta Artisanu kremak ikastaroetan izena emoteko epea.

18:00etan Gaztelekuan, Europako biajearen parte hartzeako izen emotea zabalik hilaren 26ra arte. 1998 eta 1995 urteen artean jaiotakoentzat.

ZEBERIO

18:30ean, Zeberio danon artean, 2015eko aurrekontuak egiteko batzara udaletxean.

ZEANURI

Zezeilaren 6, 7 eta 8an Baqueirara urtekerea. Izena emoteko epea zabalik. Suzien Mendi Klubak antolatuta.

URTAILAK 17
IGORRE

10:30ean hasita. Egun osoko jai. Arratia Kirol Elkartearen kromo bildumearen aurkezpena Urbietako futbol zelaietan. Trikitixa, taloak.

22:00etan, zinea *Perdida*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

San Anton jaiak Barañao auzunean. 12:00etan mezea eta barauskarria.

URTAILAK 18
AREATZA

08:00etan, Laminio Mendi Taldearen urtekerea Orozkoko mendietara. Ibilbidea: Murueta-Elorribizaga-Jesuri-Arrola. Eleizako portikuan.

Areatzako alde zaharretik ibilbide historikoa



Su Ta Gar eta Tutan Come On Kiñun

Urtailaren 31n, Igorreko Kiñu Gaztetxean Su Ta Gar eta Tutan Come On taldeen kontzertuak egongo dira. Jaialdia, gaueko 21:30ean hasiko da. Zortzi euro balio dau sarrereak eta aurrealmenta puntuak Igorreko Axular Herriko Taberna, Kukuma taberna, Gau Lora eta Txaparro jaietxea dira.

Ez dau aurkezpenik behar Su Ta Gar talde eibartarrak. Izan be, 1987an sortu zan eta harrezkerotik heavy metala euskeraz landu dabe, eta honetan aurrendariak izan ziran. Hamasei disko dituz kalean, atzena, *Bizirik gaude* izenekoa, 2013an argitaratu eben. Nazinoarteko mailan errekonozimentua daukie eta mundu zabalean zehar jo dabez euren kontzertuak.

Tutan Come On, gasteiztarrak, barriz, punk rock musikea egiten dabe eta talde barria da, 2013ko maiatzean sortu zan eta. Gitarrea eta abotsa ipintzen dau Condek eta bateria eta abotsa Salterainek.

Mikel Urizen eskutik. Parkebeak antolatuta.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Los pingüinos de Madagascar*. 19:30ean, zinea *Perdida*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, Zeanuriko Bertso saioa. Bertsolariak: Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Ebahun Lekue.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea Alen-Ventosa.

URTAILAK 19

DIMA

Ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

URTAILAK 21

AREATZA

18:00etan, *Coaching* ikastaroa. Emakume Foroko gelan, udaletxearen 3. solairuan.

URTAILAK 22

IGORRE

18:30ean, Arratia garatzeko planaren oinarriak jami eta helburuak marrazteko ariketa parte hartzailea, Elhuyarren eskutik. Kultur Etxean.

ZEBERIO

17:30ean 9 urtetik gorakoentzako entsegu ludotekan. 18:30ean, Zeberio danon artean, 2015eko aurrekontuak egiteko batzara udaletxean.

URTAILAK 23

BEDIA

18:00etan eta domekara arte, Baqueirara eski urtekerea. Udaletxe ondoan.

IGORRE

13:00etan, Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketan lanak aurkezteko atzen eguna. Udaletxeko Erregistroan.

ZEANURI

17:30ean eta domekara arte, eski urtekerea Pirinioetara, Joko Alai Kirol Elkartek antolatuta.

ZEBERIO

18:30ean, Zeberio danon artean, 2015eko aurrekontuak egiteko batzara udaletxean.

URTAILAK 24

AREATZA

22:00etan, JA and The melody Breaker-en kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *Interstellar*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan Zugatz Eguna Elizondan.

ZEANURI

11:00etatik aurrera eta 16:00etatik aurrera, Arratia-Nerbioi E, eskolarteko pelota txapelketaren finala.

URTAILAK 25

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Operación cacahuete*. 19:30ean, zinea *Interstellar*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

19:00etan, zinea *Blade Runner* (Ridley Scott). Udaletxeko 2. solairuan.

URTAILAK 29

AREATZA

19:00etatik 20:00etara AKKBren bazkidetza barrizatzea. Udaletxeko 3. solairuan.

DIMA

Ikastaroetan izena emoteko atzen eguna.

ZEBERIO

17:30ean Zeberio Kantuz entsegu orokorra ludotekan.

URTAILAK 30

AREATZA

Umeentzako talo tailerra. Arto urunagaz taloak egin eta dastatzeko aukerea. Parkebeak antolatuta.

18:00etatik 19:00etara AKKBren bazkidetza barrizatzea. Udaletxeko 3. solairuan. 19:00etan AKKBren urteko memoriaren aurkezpena. Udal Aretoan.

21:30ean El vuelo del picaro-ren kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen bankua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEANURI

19:30ean, Arratiako tranbiaren erakusketearen inaugurazioa eta berbaldia. Jon Urutxurtu eta Juanjo Olaizola. Kultur Etxean.

ZEBERIO

17:30ean Zeberio Kantuz entsegu orokorra ludotekan.

URTAILAK 31

IGORRE

20:00etan, Txintxuan kolektiboak *La extraña pareja* antzezana. Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MASAJEAK EMOTeko OHATILA
SALGAI

Masajeak emoteko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesautu zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

DANERIK

PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukaldea, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

IKASTAROA

Buztinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukerea. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara. Animauta bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baserri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago. Interesatuak deitu: Izaskun 605 728 358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun_urbaneta@hotmail.com-era.

TXISTUA GALDU DOT

Abenduaren 21ean, Lemoako eleiza inguruan txistua galdu neban. Baten batek topau ezkerro deitu 677 497 985 telefonora mesedez.

BEHAR BILA

Etxeko behatrrak eta garbiketak egiten dodaz. Kotxeduna. 658 591 307.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Kiñu Gazte Asanbladeak emondako bina sarrera hilaren 31ko Su Ta Gar eta Tutan Come On taldeen kontzerturako.

Joserra Ipiñazar (Areatza)
Juan Mari Beobide (Areatza)



2 Zeanuriko Udalak emondako bina sarrera hilaren 18ko Zeanuriko bertso saiorako.


Ibon Ozerin (Igorre)
Nagore Bernaola (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 12 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Jangura. India. 2.- Ohikotasuna adierazoteko. Mosua. 3.- Koloka. Odol mota guztien hartzaile. 4.- Zorabioa. 5.- Konsonantea. Kataluniako ibaia. Letra bat. 6.- Bildurti. 7.- Birritan, korotza. Neke. 8.- Dima udalerriko auzoa. Jatorri atzizkia. 9.- Errutenioa. Zelan.

GOITIK BEHERA

1.- Futboleko, tanto. Ale. 2.- Taula. Kulunka. 3.- Lehortu. Bokala. 4.- Bokala. Garaua. Nitrogenoa. 5.- Alfabetoko lehen letra. Pozu. 6.- Iparralde. Irango dirua. 7.- Gris. Euskera zaharrea, txakurra.



Topau gabonetako zazpi apaindura edo elementu.



AKMIKO

Igor Menika



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa: 94 673 64 25

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

basola Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerabasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 33 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimena: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Telefonoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTSULTAN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN
Bilbo Arana, 3. Floor. 94 673 71 61 - Fax: 94 673 94 61 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-por: urroz@euskalnet.net

PILI ALVAREZ MOLÉS

"Harremanak izateko modua aldatu ezker, libreago, alaiago eta osasuntsuago biziko ginateke"

Pili Alvarez Molés, Bartzelonan jaio zan eta zazpi urte dira Euskal Herrian bizi dala. Soziologia ikasketak EHUan amaitzera etorri zan eta atzenengo hiru urteetan Igorreko Ibarondo auzuneko baserri baten bizi da beste lagun bigaz. Zezeilan, neska gazteai zuzendutako Autodefensa feminista ikastaroa emongo dau Igorren.

Erredakzioa**Bartzelonakoa izanda, zergaitik aukeratu zenuen Igorre biziteko? Ze antzekotasun eta ze desbardintasun dagoz Bartzelona eta Igorren artean?**

Bilbora etorri nintzan lehenengo eta han nengoan "okupa" legez. Etxea noz itxi arazoko euskuen zain bizi ginan, batzuetan argi eta ur barik. Emakundeko beka bat neukan, genero harremanak, kultura eta gaztetxeen inguruan ikerketa bat egiteko. Ikerketa hori amaituteko lasaitasuna behar neban eta heldu jatan e-mail bat esanez lagun baten lagunaren baserrian logela bat egoala hutsik. Joan nintzan ikustera eta lekua eta jentea gustau jatazan eta Igorren geratzea ebatzi neban.

Bartzelonatik Bilbora joan nintzan aldaketea izugarria izan zan. Euskal Herriko uriburua da Bilbo, baina niretzat txikia zan. Gustau jatan auzoka mobiduten zala jentea eta batetik bestera oinez joateko modua baegoala. Bilbotik Igorreko auzo batera etorri nintzan gero eta hemen be sano gustora. Igorre mendian dago baina herriak mobimentua dauka, bizitza. Bilbotik hur dago... Ontxe ez neuke aldatuko Igorre ez Bartzelonan biziteko, ezta Bilbon biziteko be. Handitasunetik txikitasunerako bidea egin dot. Gainera kuadrilea be egin dot hemen. Kuadrilan, gehienak kanpoztarrak edo trenak ekarriak gara, kar, kar. **Euskeraz oso ondo egiten dozu.**

Noz eta zergaitik ikasi zenuen?

Beka batez Norvegiara joan nintzan eta joan aurretik norvegiara ikasten egon nintzan. Norvegiara, norvegierearen orde euskera ikasten hasi nintzan, katalanak eta Bartzelonara itzultzean, Bartzelonako Euskal Etxean emon neban izena euskera ikasteko. Hurrengo urtean etorri nintzan Euskal Herriara eta euskaltegian jarraitu neban euskera ikasten. EGAREN baliokidea daukat eta Laugarren Hizkuntza Eskakizuna nago egiten.

Inportantea iruditzen jatan euskera ikastea hemengo bizimodua euskeraz egin ahal izateko eta ulertzeko. Horretarako historia, esamoldeak, ohiturak, eta abar ezetu behar dira.

Zezeilean Igorren Autodefensa ikastaroa emongo dozu. Noz hasi zinan autodefensa irakasten? Nortzuk dira zure erreferenteak? Autodefensan igaz hasi nintzan kasualidadez. Ikastaro bat jasoten nengoan eta komentau neban formau gura ne bala neure burua ikastaroak emoteko. Bizkaian oso formatzaile gitxi dagoz autodefensa feminista euskeraz emoten dabenak.

Erreferentetzat Maitena Monroy daukat eta orain Emagin-egaz (Bilgune Feminista) alkarlanean nabil. Hainbat ikastaro eta ikerketa egiten dauan kolektiboa da Emagin. Baina nahiko autodidaktea be banaz, beste aukerarik ez dago eta.

Autodefensa feminista ikastaroa egiten nenbela, dinamizatzaileak Bilbon hasi behar zala 50 orduko ikastaro bat emoten aitatu eban eta hurrengo egunean euki neban dei bat esanez berak ezin ebala ikastaro hori emon eta ea neuk emon gura neban. Holan hasi nintzan eta harrezkerotik pilo bat egin dodaz edo hitzartuta daukadaz.

Zer da autodefensa feminista? Zer eta zelan ikasiko dabe ikastaroan parte hartzean dabenak?

Autodefensa feminista, "auto", "defensa" eta "feminista" da. "Auto" hasteko norberaren buruagaz egin behar dalako behar, autoezagutza bat da, eta gero konpartiduten bada taldean ba askoz aberatsagoa izaten da, asko ikasten dalako beste andrakan-dik. "Defensa", bizi garan jentarte matxista honetan, alua izategaitik hainbat arazo sufriduten dogulako egunerokotasunean, eta horregaitik defendidu beharra daukagulako. Eta "feminista", feminismoak emoten daualako gako ze jentartetan bizi garan ulertuteko. Arazo estrukturala da eta sistema patriarkal baten menpe bizi gara.

Etorren diranak, lehenengotik parte psikologikoa izango dabe. Hainbat mito desmitifiketan doguz eta horren haira eztabaidatuten dogu, autoestime landuten dogu, bildurra, kalea eta gaua... Maitasun erromantikoaren gainean be egiten dogu hausnarketa bat bere mito eta ondorio larrien gainekoa. Horrekin danari aurre egiteko badagoz erabili geinkezan tresna batzuk: abotsa, gorputzaren eta begiradearen jarkerea... Amaituteko teknika fisikoak landuko doguz.

Ahalduntze prozesu bat da. Sinergia handia sortzean da taldean, eta partaideak ateraten dira autoestimu handiagaz eta ikusten dabe hainbat gauza aldatu behar dirala, norberaren buruari jagokonean, zein gizartean.

Ikastaroa neska gazteentzat da. Zergaitik gazteentzat bakarrik?

Ikastaro hau neska gazteai dago zuzenduta. Udalak ikusi daualako orain arte antolatutako Autodefensa feminista ikastaroetara gazte gitxi hurreratzten zirala. Horregaitik, Soraya Lizundia Igorreko zinegotziagaz batera, pentsau genduan eurari zuzendutako ikastaroa antolatutea euren parte hartzea errezuteko. Dana dala, gaztea modu zabalean ulertuko dogu, adin tarterik ipini barik.

Zein da autodefensearen helburua?

Helburua baino gehiago helburuak esango neuke. Lehenengo eta behin, norberaren burua ezagutzea eta maitatzea. Bigarren helburua, ze eraso mota bizi doguzan identifikatu eta eraso aurre egiteko baliabideak emotea, bakoak bere modura egin ahal izateko aurre modu ugari ezetu behar dira. Hirugarren helburua andrak bildu eta sinergia bat sortutea da, gero beste gauza batzuk egiteko aukerea emongo dauana.

Androk aurrerapausu inportanteak egiten gabiz, baina jentarte eta horren barruan gizonak ez badira aldatzen, beti egongo gara defendidu beharrean. Ideala izango litzateke autodefensa feministearen preminarik ez egotea, jentarte feminista baten bizitea, hau da, edozein personak indarkeriarik sufridu ez, eta aukera bardinak daukan jentarte baten bizitea.

Autodefensearen txanponaren beste aldea, gizonetako eraso egiteari ixtea izango litzateke. Bide horretan, zeintzuk dira emon diran pausuak? Ze egoeratan gagoz?

Edozein andrak eraso sufridu lekeala ulertzen dogun moduan, gizonak ulertu behar dabe edozein gizon izan leikeala erasotzailea, euren sozializazioaren erruz. Orduan, guk batu eta berba egiten dogun moduan ikasitakoa deseregiteko, gizonak be batu eta berba egin beharko leukie ikasitakoa desikasteko.

Egoera txarto dago, gizonak ez dabelako honen beharra ikusten edo ez deuselako lehentasuna emoten

andron giza eskubideai, euren bizimodua asko aldatu beharko litzatekelako hori egin ezker.

Zelan ikusten dozu Arratia andren eskubideen arloan? Zeure eretxian, zeintzuk dira bere alde sendoak eta alde makalak?

Herrietan andra taldeak edota talde feministak egon arren euren ekarpen xumeak egiten, taldeotan andra gehiago batzeako premia dago. Ez neuke esango Arratia beste lekuetatik diferentea danik, eta hemen be, burrukan jarraituten dogu andrazkoen giza eskubideak defendiduteko.

Orokorrean, alde sendo moduan esango neuke gero eta andra gehiago konturatzten dala holan ezin garala bizi, ez garalako ez askeak ez alaiak. Gero eta gehiagok, begiak zabaltzen doguz, betaurreko moreak jantzen doguz eta beste andra batzuk konpartiduten dogu hori alaitasunaren bila.

Alde makalak, barriz, egunerokotasunean leku eta personakandik jasotako mesprezuak, erasoak, irainak... Askotan oso sotilak izaten dira eta gizarteak ez ditu eraso moduan hartzean eta beraz ez dau erantzuten.

Piropo moduan be hartzean dira batzuetan irainak...

Emagin taldeagaz batera maitasun erromantikoa eta hartu-emonen inguruko ikastaro bat prestatzen nago. Nik uste dot maitasunaren izenean, androk geure buruari kalte handia egiten deusagula eta egiten deuskuela. Harremanak izateko moduak zalantzan ipini eta aldatu ezker, alaiago, askeago eta osasuntsuago biziko ginateke.



begitu
arratia ubide zeberio
www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115